

Noaia!!



Ucineko ke isurketek
kezka eragin dute



Festetan, denak garaile



Santixabel hauetan zu ere argazkilarik!

Janetako zuzen argazkiak hurrengo Noaualki argazkilarikok idatzi.

Dagoeneko jaiak abiatu dira baina, seguru gaudu argazki mordoa atera dituzuela eta bestela oraindik ere garrantzibiltzat. Koadrilako argazkiak, gauekoak, eguneko bitxikeriak... Noaualki argazkilariak ateratzen ez dituen argazki horiek nahi ditugu jaso. Bidali erredakzioa@noaua.com helbidera edo okarri guro ogoltzara.



ondo pasa pasatu gabe!!



Noaua!!
www.noaua.com

Amaitu da emakumeentzako pala ikastaroa

Duela bi hilabete, pala ikastaro baten deialdia jaso genuen aldizkari honetan. Emakumeei zuzendutako ikastaroak arrakasta handia izan duela esan daiteke. Hamalau izan ziren izena eman zutenak. Sei astez, Haritz Zubiaurren esanetara aritu dira Aginagako pilotalekuan.

Astean bitan aritu dira entrenatzen. Palan jokatzeko ikasteaz aparte, bestelako kontuak lantzeko aukera ere izan dute: beroketa-lanak nola egin, luzaketak, palari nola heldu...

Azken egunean, kamiseta eta pilota elkarteko federatu txartela eskuratu zuten partehartzaileek.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurerko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

TORREALDAI, SARITUA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

UCINEKO KEAK ETA USAIAK **8. OR.**

JAIK, IRUDITAN **10. OR.**

SANTIXABELAK, AZKEN TXANPAN **12. OR.**

AMAITU DA USURBIL CUP 2007 **13. OR.**

LANBIDE HASTAPEN IKASTAROAK **14. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AINHOA AZPIROZ

Denbora neurtzeko erak

Iritsi dira Santixabelak eta laster bukatuko dira. Sanfermiñak ere ate joka, baina horiek ere hamalau eguneko bizia izango dute. Hori bai, hilaren 14an bertan hasten dira hurrengo urteko Sanfermiñetarako 364 egun falta direla esanez. Seguru norbait egongo dela urte guztian egunez egun “egun bat gutxiago falta da” esanez. Ziur baten bat egongo dela urtea edo bizitza horren arabera markatzen duena: “halako urtetako Sanfermiñetan gertatu zen hori”, “onenak halako urtekoak”...

Pentsatzen jarrita, norberaren interesen edo ohituren arabera, denbora modu diferentean kontatzen dugu, bai. Adibidez, umeak lehengo aldiz joaten direnean bi edo hiru eguneko eskursiora “lo bat edo bi lo” egitera doazela esaten dute; “lo”ekin kontatzen dute denbora.

Arrantzaleak marea gora eta marea behera ibiltzen dira bai itsasoratzeko eta bai porturatzeko. Baratzetan aritzen direnak, berriz, ilargia izaten dute erreferentzia. Izozki saltzaileentzat udara eta negua daude, urtea bitan banatzen da. Politikoei hauteskundeak arabera antolatzen dute dena. Ikasleentzat azterketak dira neurgailu garrantzitsuenak. Haurdun dauden emakumeak bat-batean hilabeteak albo batera utzi eta asteak kontatzen hasten dira. Kirolariak, berriz, ligak eta txapelketak izaten dituzte buruan, berdin du zein hilabete den. Presoek egunak atzekoz aurrera kontatu ohi dituzte.

Azkenean, bakoitzarentzat garrantzitsuena denak markatzen du bizitza eta denbora.

Denbora kontatzen ez duenik egongo ote da?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztailak 13. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 9.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

milorri
Lorezaintza ekologikoa

☎ 660 745 774
699 152 282

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Joan Mari Torrealdaire, esker onez

Ricardo Arregi Kazetaritza Sariaren ohorezko aipamena jaso du

Rikardo Arregi kazetaritza sariak banatu ziren Andoainen pasa den ekainaren 30ean. Arantxa Iturbe, Josu Martinez eta Mikel Garciarekin batera, Joan Mari Torrealdaire saritu zuten, Andoaingo Bastero kulturgunean ospatu zen ekitaldiaren XIX. edizioan.

“Bitxia, batzuek kondenatu eta besteek saritu naute, arrazoi berberengatik”, adieraziz hartu zuen epaimahaiaren Ohorezko Aipamena Joan Mari Torrealdaire. Orain arteko lanarekin aurrera jarraitzeko indarra ematen ziola aitortu zuen. Sariaketari izena ematen dion Rikardo Arregiren lagun eta lankide izan dena hunkituta ageri zen, bere esanetan, “uneagatik eta bere izena daramalako”.

Epaimahaiak saria Torrealdaire ematea erabaki du, besteak beste, haien hitzetan “mundua ulertzeko euskaldunoi tresnak eman dizkigulako”. Euskarazko tresnak edo produktuak. Torrealdaire gogoan izan zituen, Euskaldunon Egunkarian edota Jakinen lankide izan dituenak, “baita auzitegi bidean direnak ere”. Bere esanetan, “merezimenduak ez baitira nireak soilik”.

Oztopoak bidean

Frankismo garaian ahalegin itzela eta arriskutsua egin zuen. Testuinguru horretan, eta geroago, hainbat oztopo, zentsura, debeku eta itxierei aurre egin behar izan die. Geroaldi horretan ere, euskal kazetaritza euskaraz egindakoa zela gogorarazteagatik, horregatik guztiagatik jaso du aipatutako saria. Hemendik aurrera-



JOAN MARI TORREALDAIRE, SARIA JASOTZEKO UNEAN. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA EUSKALDUNON EGUNKARIA ETA JAKINEKO LANKIDEEKIN PARTEKATU ZUEN.


koari dagokionez, iragarpen bat ere egin zuen. “Ezagutzen nautenek dakitenez, ez naute erretiratuko”, adierazi zuen

Usurbilen bizi den foruarrak.

ARITZ GORRITI

Ibilbide luzea duen langile nekaezina

Amaitezina litzateke kazetari-tzan, soziologian edota irakas-kuntzan Torrealdaire egindako lana. Elkar argitaletxeko sortzaileetako bat, Euskaldunon Egunkarian, Jakin eta Anaitasuna aldizkarietan jardundakoa. Modu berean, euskaltzain urgazlea, irakasle lanetan aritu da unibertsitatean, hainbat libururen egilea, prentsari buruzko azterketa sakonen egilea...



EUSKAL KAZETARITZAREN BIDEA ZABALTZEN ARITU DEN LANGILE GISA DEFINITU DU RIKARDO ARREGI SARIKETAKO EPAIMAHAIK.

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ **943 361 182**
USURBIL

LATAILLADE
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8, behea · **943 363 348** · **609 888 021**

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Gazterik ba al da auzoan?



Gure auzoa ez da bizi asko duen auzoa. Egunerokotasunean ez dira bizpahiru haur baino ikusten. Gazteak berriz Akerra gaztetxean ikusten direnak. Gure auzoko gazteak beste leku batetara joan dira. Zergatik ote? “Txoko honetan ezer ez dago eta beste norabaitera joan behar” erreflexio hau askok egin dute baina ez zait iruditzen zuzenena denik. Badira zenbait etxebizitza berri direnak eta auzokoak izan ez diren jendea ere etorri da bertara.

Nola geratuko dira ba auzoan azken urteetan ez badute etxe bakar bat ere egin? Auzoko gazteak beste nonbait aurkitu behar izan dute bizilekua. Azken etxea egin zela izango dira urte mordoxka bat. Proiektuak edo zurrumurruak beti entzun ditugu. Frontoia dagoen gainan etxeak egin behar dituztela, babes ofizialeko etxeak eraikitzeak direla, Erroizpe elkarte erosi eta elkarte mantenduaz etxe bizi-tzak egingo direla... Proiektua eta ideia faltarik ez dagoela esango nuke. Jendea gustora biziko litzatekeela ere nahiko argi dago (kanpotik ere etortzen dira egin dituzten etxeetara). Ea ba norbaitek ideiak hartzen dituen eta asmoak burutzeko bidea egiten den.

Hau izango da gure auzoa mantentzeko modu bakarra.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Festak



Iritsi dira festak eta kalea festazaleez beteta dago. Festazale amorratuak ez dio aitzakia handirik jartzen egitarauari. Txupinazoarekin batera bere oinak martxan jartzen dira eta festak amaitu arte kalean izango da bere etxea.

Jon, festazale amorratua da eta urtero bezala apreta berriak erosi ditu. Lehendabiziko egunean jantzi eta azkeneko eguna arte ez du beste oinetakorik jantziko. Dagoeneko zoruak txiki txiki eginga dauzka. Gaztea da Jon eta ez du asko behar bere apreta berriak dantzan jartzeko. Nahikoa du trikiti pixkat entzutea, lagunekin arin arin bat dantzatzeko edo lagun minarekin “agarrauan” egiteko. Jon eta bere lagunak jolasen dabilta, baina prest daude laguntzeko ere: txosnetan, umeen jolasak antolatzen, egunez, gaez.

Maritxu berriz ez da gaztea, baina bai festazalea. Santixabeletan apain apain jantzi eta herrira jaisten da. Bertsoak ditu gustoko eta ez du galtzen urteroko emanaldia. Santixabel egunean plazan zebilen meza ondoren, salda pixka bat hartzen.

Jon, Maritxu eta beste guztiok aste batez Santixabel jaiekin gozatzen. Ondo pasa.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Zer idatzi?

Gaurkoan ordenagailuaren aurrean idazten jarri eta zer idatzi ez dakidala geratu naiz... Beraz, hementxe jarraitzen dut zerbait idatzi asmoz... horrela gutxienez hitzak gehituz doaz.

Pozik nago. Eguraldi politarekin esnatu gara gaur aspaldiko partez! Berriro ere udako gauza tipikoak egiten hasiko gara: hondartzara joan, festarik festa ibili... eta abar luze bat.

Gezurra dirudi horrelako gauza txikiek zein zoriontsu egiten gaituzten... baina polita da zoriontsu sentitzea, dugun guztia aprobetxatzea eta momentuan momentukoa bizitzea. Batzuek askoz gutxiago dute eta hala ere zoriontsu dira... eta guk izugarritzko oporrak ditugu aurretik... Zer gehiago eskatu dezakegu?

Txorien txorrotxioa entzun dezaket nagoen lekutik eta inspiratzen lagundu ez, baina zoriontasuna gehitzen didate!

Gaur, beste egun normal bat izan da... baina egun bakoitzak xarma berezia darama berarekin... eta xarma horrek bereizten du egunetako bakoitza...

Eta hara! Konturatu gabe hau bete eta hasieran ezinezkoa zirudiena lan erraz bilakatu da! Batzutan dena ez da uste bezain zaila...



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Ucineko keak eta usaia

Azken aste hauetan Noauako webgunean Usurbilgo Osinalde industrialdean dagoen Ucin lantegiak isurtzen dituen ke eta usaien inguruko salaketak irakurri ditugu. Arazo hau ordea ez da berria, aspalditik ari baikara sufritzen auzoan.

Noauako web gunean irakurri ahal izan dudanez Ucin Euskadiko enpresa kutsatzaileen artean erregistratua omen dago. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak horrelako enpresetan inspektzioak egiten ditu, baina nonbait neurketak momentu jakinetan egiten dituzte eta aldeztu aurretik enpresei jakinarazten omen zaie. Hau horrela bada gainerako momentuetan zer gertatzen den ez dakite.

Badakit udala gaia aztertzen ari dela eta laister Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ordezkariarekin eta Ucin enpresako arduradunekin bilera bat egitekotan direla.

Ea arazo hau laister konpontzen duten eta ez daukagun lehioak itxita bizi beharrik.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Sardinak izan genituen



Egutegiak dioenez udaran sartu omen egara baina eguraldiak ez digu horrelakorik erakusten. Dagoeneko San Juanak pasa zaizkigu eta errenkan datoz beste festa guztiak ere. Gure auzoan San Juan bezperan giro bikaina omen zegoen, sardinak eta guzti. Nik ezin izan nuen azaldu, beste auzo batean egon behar nuen, baina holakoetan ez naiz aspertuko eskerrak emateaz gure auzoko bi elkarteei. Benetan bizia pizten baita holakotan auzoan eta elkarrekin egoteko eta hitz egiteko aukera ematen digu.

Eskubaloizelaian egin da. San Juan sua eta horretarako behintzat oso ongi dago. Bestalde esan behar dut, Mertxe Balerdi eta Omar Andoni gurekin ditugula aspaldiko partez. Espero dugu, oporraldia ondo pasatzea gure artean.

Gaiaz aldatuaz, aurreko kronikan idatzi nuen, Udaletxerako aldaketak nahi nituela, eta hala gertatu da, gutxienez herriak nahi duen Udala izango dugu ez beste herri askotan bezala. Bukatu nahi nuke kronika hau, eskerak emanez Kalexarko jende askori, gustura joan nintzen Rolling Stones ikustera, a ze animazioa jarri zenuten.

AGINAGA

M^a ANJELES ARRUTI

Gure lagun Arantxari

Oraingo honetan ezin utzi aipatu gabe gure koruko kide den Arantxa. Urte osoan zain egon da belaueneko ebakuntza egiteko, oinaze haundiekin, ezin ibili, oso mugatua egon da. Baina ekainaren 19an, asteartea, egin zioten ebakuntza. Bisitatxo bat egin nion eta oso pozik eta animatua aurkitu nuen. Minik gabe eta pilulik hartu gabe zegoen eta horrek lagundu egiten du animoso egoten.

Tartetxo honetatik, koruko lagun eta elizako partaide guztien partetik, besarkada bat bidaltzeko aprobetxatzen dugu. Ea lehenbailehen gure artean izaten dugun eta pasatako urtebetea ahazten laguntzen dizugun. Muxu haundi bat eta laister arte. Eutsi goiari Arantxa.

Gaiaz aldatuaz eta herriko festak gainean ditugun honetan, denei ondo ondo pasatzeko esan nahi nieke. Dagoeneko egun batzuk egin ditugu festetan baina beste batzuk ere baditugu aurretik. Ea ba gazte zein helduek ondo pasatzen ditugun egun alai eta eder hauek.

Seguru nago datorren urtean Arantxa eta biok ere dantz saioa egiteko sasoian izango garela.



URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Giroak lagunduko balu...



Agur bero bat guztiei Usurbilgo Atxoko honetatik!

Iada udan sartuak gaude eta astea ere giro ederrean igaro dugu. Oraindik ere asteburu osoa izango dugu aurretik, beraz, bete-betea aprobetxatzea tokatzen zaigu. Eta Usurbilgo festak behin igarota, auzoetakoen zain geratu beharko dugu. San-Estebanak, abuztuko lehen egunetan izango ditugu, eta aurten ere guztientzako izango da festa geurean. Umeen eguna, jubilatuen bazkaria, musika...

Hau guztiaz gain, eguraldiaren kontua aipatu beharrean aurkitzen naiz berriz ere. Izan ere, eguraldiaren gora-beherak direla eta, San-Estebango baserritakoek belarrak egiteko nahiko buruhausterekin dabilta. Iada belarra mozteko prest badago ere, orain arteko eguraldiaren gora-beherak ez dute askorik lagundu.

Gaurkoz besterik ez, aprobetxatu Santixabeletako azken egunak eta utzi festarako gogoak, geure auzokoe-tarako ere. Ondo izan.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Gaur plazan

Gaur, plazan, neskato bat atera da Gentsaiotik, trikitixa eskuan. Aldameneko bankuan eseri da, soinua lurrean, ondo-ondoan, txukun-txukun utzita. Zain dagoela ematen du, egonean.

Halako batean -luzetsirik- besoetan tramankulu astuna hartu eta 30 metro harantzago eraman du. Zabuaren -kolunpioa esaten diote- oinean utzi du, aldean, zoruan, arretaz, eta eserita atzera-aurrera hasi da, kulunka.

Saioa egin eta gero, lehengo lekura egin du atzera, lasai ederrean geratzeko. Egonean kieto. Ez da bertakoa zazpi urteko neskatoa. Inguruko umeak ez ditu ezagutzen, ez dute bera ezagutzen. Luze jo du. Egonarria probatzeko beta? Asperra. Inoren zain dago, dirudienez.

Eserita oinak juxtu-juxtu zorura. Ume jendea, urruti. Azkenik eta ezinbestean, soinua atera bere kutxatik eta jotzen hasi da. Ezagutuko dituen bi kantetatik bat, agi denez: poliki, kostata, baina kemenez. Melodiak alaitu du arratsalde hasiera hau.

Ederra da gero aspertzea, zenbaitetan!



Ucineko keak eta usaiak ugaritu egin dira

Azken bolada honetako isurketak direla eta, bizilagun asko kezkatuta daude Atxegalden

Ucinetik datozen keak eta usai txarrak Atxegaldeko bizilagun askoren kezka eragin dute azken egunotan. Ekainaren 28an, Ucin Aluminios lantegira bertaratu ginen. Bulegoetara jo genuen eta gerentearekin hitz egiteko eskatu. Une horretan gerentea kanpoan zela eta beranduago telefonoz deitzeko gonbitea egin ziguten. Behin eta berriz saiatu gara, gure telefonoa ere utzi dugu, baina oraingoz ez dugu Ucineko arduradunen hitzak biltzeko aukerarik izan.

Ucin utzi eta Osinalde industriguneko beste lantegi batzuetara jo genuen iritzi eske. Elhuyar Fundazioko bi langilerekin izan ginen lehen-lehenik. "Azken 2-3 egunotan usai txarra sumatu dugu, poxpolo errearen antzekoa". Atxega Jauregitik Elhuyarrerako bidean sumatu zuten usai hori eta Igepakekoa izango zela pentsatu zuten. Igepaken ere ohikoak izaten baitira usai txarrak. Baina Andoni Sagarnaren blogean (www.bloglines.com/blog/andonisagarna) irakurritakoa eta gero jabetu ziren Elhuyarreko bi langile hauek usainen kontua Ucinetik zetorrela. Elhuyarren aldamenean da Diplosistemas enpresa. Han ere galdetu genuen baina ez dute ezer berezirik sumatu. Aizpurua autobusetako bulegoetan ere ez dute ezer berezi-

rik sentitu azken egunotan.

Osinalde industriagunea utzi eta Atxegalde auzora jo genuen. Alkorta harategiko nagusiaren esanetan, "desastrea da hau. Usaia, keak...". Ez omen da azken egun hauetako kontua; duela hiru hilabetetik hona ugaritu egin dira erretzeak eta isurtzeak. "Haizeak hona jotzen duenean nabaritzen da. Kea honaino iristen da eta erre usaia ere bai. Agoantatzerik ez dagoen moduan". Gauzez eta egunez gertatu dela adierazi digute. Dendan bizilagun askoren kexuak entzun dituztela adierazi digute Alkorta harategikoek.

"Hau nola liteke?"

Aldatz dendan ere, berdin. Han ere asko izan dira entzun dituzten kexuak. "Jendeak askotan galdetu digu, hau nola liteke?". Aldatzekoek entzun dutenez,



KEA UCINEN. AZKEN BOLADAN, MAIZ ERREPIKATU DEN IRUDIA.

gaueko ordu txikitik izaten dira keak. "Auzoan bada lo egiteko arazorik duenik. Balkoira atera eta orduan sumatzen dute kea. Batzutan ezin dela arnastu ere egin". Aldatzekoak ez daki usaia horkoa den edo ez. "Baina atzo bertan (ekainak 27) ustel usaia handia zen. Beste batzutan erre usaia, goma erre usaiaren antzekoa".

Aluminio zaharra erretzen da, berria egiteko

Ucinetik aluminioa egiten du. Aluminio berria egiteko, ordea, aluminio zaharra eskuratzen dute. Txatarra hori erretzen dute labean, oinarritzko materia eskuratu ahal izateko. Eta materia horrekin egiten dute aluminio berria. Gehienetan, perfilario txatarra erretzen da Ucineko labean: aluminiozko leihoak, markoak...

Txatarra leioak berdez margotuta badaude, kea berdea izaten da.

NOAUA!k jakin ahal izan duenez, lehen, labea %30ean erabiltzen zen. Ez zitzaion errendimendu osoa ateratzen. Gaur egun, ordea, labea %80an erabiltzen ari dira. Gainera, oxigenoa gehitzen zaio orain, erretze-prozedura azkartzeko.

www.noaua.com webgunean herritarrek utzi dituzten mezuak

Herritar batek Interneten zintzilikatutako bideoak piztu zuen eztabaida. "UCIN-eko kutsadura" izeneko bideo hori honako helbidean ikus daiteke:

www.youtube.com/watch?v=tbuFdWTPvOw

Ordutik hona, hainbat iritzi bildu eta plazaratu dira noaua.com webgunean. Hori-etako batzuk jaso ditugu ale honetan:

MARIA JESUS DEL PICO

(...) Orain arte, trumoiaren eztanda entzun ondoren esnatu naiz gauetan, baina lehengo batean usain kezagarri horrek iratzarri ninduen. Gainera etxe barruan sartuta zegoen zikinkeria hori, balkoian ezin ginen egon, kalea kutsatuta zegoelako. Niri une honetan eta neurri batean, askatasunik gabe bizi nai-

zela iruditzen zait (...).

BESTE ATXEGALDEK BAT

Ba bai lotsagarria da udara da eta gau eta egun ezin leihorik ireki etxia aireatzeko ere. Ke honek botatzen dun usai sarkorra ezin ona izan. Jada udaltzaingora deitua naiz pare bat aldiz erabat amorratuta, eta erantzuna zein izango eta enpresak legearen barnean omen ditu gas isurketa guztiak, eta ezin dela ezer egin keitzen jarraitu beste erremediorik ez!! Arazo hau ez dago Atxegalden bakarrik (...). Udaletxeak gai honen inguruan zerbait egiteko betebeharra dauka, enpresari legalki ezin bazaio ezer esan, hona proposamena: udaletxea ardura dadila, egoeraren azterketa objektibo bat egi-

tera, hau da, isuri hauek airean zer eragin duten azter dadila.

AINARA SAGARNA

Ucinen isurketek oso kezkatuta naukate eta ikusten dut ez naizela bakarrik. Batzuk soilik usain txarra edo kea nabaritutako dute, baina hanka sartzeko beldurrik gabe baieztatu dezaket arnasketa arazoak eta gaitz larriak eragin ditzakeela egoera honek. Era berean baieztatuko nuke isurketa hauek ez daudela kontrolatuak eta ez dutela errespetatzen indarrean dagoen araudia. Herritarrek gai honen inguruan elkartzeko eta udalaren aurrean presioa egitea ezinbestekoa ikusten dut. Gure osasuna dago jokoan!

Udaltzaingoa: "Ke isurketak 2004tik datoz"

Duela hiru urtetik hona datoz ke isurketak edo ke kolpeak. Hala dio Pello Zubeldiak, Usurbilgo udaltzain-buruak. Bizilagunen kexuak biltzen, ordea, 2005eko urtarrilean hasi ziren; eta hala jakinarazi zion udaltzaingoak udalari. Dena den, garai hartan Ucineko labeko filtroak ondo zeuden, eta hori frogatu egin daitekeela dio udaltzaingoak.

2005eko otsailaren 16an, idatzi bat egin zuen udaltzaingoak, udalari zuzendua, non zehazten zen Ucinetik ke isurketa oso beltza egiten zela. Ustez, txatarako aluminioaren pintura erretzeak eragindako kea zen. Ke beltz horrek gutxi irauten zuen, bost bat minutuz. Hala esan omen zien langile batek udaltzainei. Baina Ucineko enkargatuak zioen ke hori labeak eragindako ur baporea zela. Udaltzaingoak honen berri eman zuen udaletxean.

UDALTZAINGOA

"Isurketen kontrola ez da udaltzainen zeregina. Horretarako daude Eusko Jaurlaritzako inspektoreak"

Dena den, argi utzi behar da ke horien kontrola ez dela udaltzaingoaren zeregina. Horretarako daude Eusko Jaurlaritzako ingurumen inspektoreak.

Azken hilabeteotan eman diren isurketak, ordea, kezkarriagoak iruditzen zaizkio udaltzain-buruari. "Kristoren usaia dute isurketa horiek. Erre usai berezia da", adierazi digu. Goizean goiz, 6:00ak aldera, edo egunaren azkenetan, gaueko 22:00etan edo 23:00etan eman direnak. Honen inguruan bitxikeria bat



OTSAILAREN 28AN UCINEKO ESTRAKTOREAREN FILTROA ERRE EGIN ZEN. SUHILTZAILEAK IRITSI ZIRENEKO UNEA BILTZEN DU ARGAZKIAK (IRUDIA: UDALTZAINGOA).

kontatu digu Pello Zubeldia udaltzain-buruak. "Ekainaren 9an ostirala, gaueko 00:30ean, suhiltzaileak Zumartegira bertaratu ziren. Emergentzia zentrotik dei bat jaso zutela, Atxega ondoan kea eta erre usaia sumatu zuela baten batek". Horrelakoetan udaltzain-buruari ere abisatzen zaio. Pello Zubeldia ere bertaratu zen eta iritsi orduko jabetu zen ez zela suterik izan. Ke hori eta erre usain hori Ucinena izan zitekeela. Hala zen, ez zen suterik inon eta iritsi bezala joan ziren suhiltzaileak.

Otsailean labearen estraktorea erre egin zen

Ucinen ondoan Aramendi fundizioa dago. Aramendikoa ere izan zitekeen. Baina ekainaren 9an ostirala, arratsaldean itxi egin zuten Aramendi eta astelehena arte langileak ez ziren lanera itzuli. Beraz, Ucinekoa behar zuen izan.

Udaltzaingoak aditzera eman digunez, aurtengo otsailaren 28an Ucin lan-

tegiko labearen estraktoreko filtroa erre egin zen. Horren ondorioz, ke handia atara zen, Usurbil lainopean uzteraino. Suhiltzaileak bertaratu behar izan zuten sutea itzaltzera.

Argitzeke dagoen galdera hau da, ordutik filtroa konpondu gabe ote dago? Ucinekin harremanetan jarri gara, baita bertaratu ere, baina ez dugu inongo arduradunekin hitz egiteko aukerarik izan.

Laster bilduko dira udala eta Eusko Jaurlaritza

Honen guztiaren aurrean, udaltzaingoa txosten bat prestatzen ari da. Espediente bat zabaldu du eta bertan bildu dira azken urteotako kexuak eta ezbeharrak. Txosten hori eramango du udalak laster Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Departamenduarekin egingo duen bilerara.

IMANOL UBEDA

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008


Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
OSU
Kamiseten, imprimaketan
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak
TABERNA

Jai giroa, bete-betea

Hasi dira jaiak eta nola hasi gainera. Giro ederrean. Egun handia pasa bada ere, jai-giroa igande gauerdira arte luzatuko da.

Azken urteotan bezala, egitaraua oparoa da. Partehartzailea. Orain arte, iragarritako guztia bete da. Burundi eta Peruko dantzarien saioa izan ezik. Euskal Herrira iristeko arazoak izan zituzten eta bertan behera geratu zen Santixabel egunean Askatasuna plazan egin beharreko saioa; baita beste herri batzuetan eskaini beharrekoak ere. Lastima, jende asko bildu baitzen Askatasuna plazan. Hala ere, euskal dantzek bete zuten kanpotar dantza taldeek utzitako hutsunea.



AURREKO LARUNBATEAN JARRI ZUTEN MASKOTA. IGANDE HONETAN ERREKO DUTE.



AMADOR GRANADO TXIRRINDULARIAK PIZTU ZUEN JAIETAKO ITXAFEROA, SANTIXABEL BEZPERAN.



ITXAFEROA BOTA ETA SEGIDAN HASI ZEN HAURREN DANBORRADA.



HELDUEN DANBORRADA, ORDEA, ARRATSALDEZ EGIN DA AURTEN. BI TALDE ATERA ZIREN.



TXARANGAREN ATZETIK ZIHOAN TALDEA DA HAUXE. BATZUK ETA BESTEAK EDERKI PASA ZUTEN.



SANTIXABEL BEZPERAN ZABALDU ZITUZTEN TXOZNAK.
IRUDIAN, ARTZABALGO KIDEAK, KALEJIRAN.



SANTIXABEL EGUNEAN IRTEN ZIREN BURUHANDIAK ETA
ERRALDOIAK.



PATXI PEREZEN SAIDAK BETI IZATEN DIRA IKUSGARRIAK.
JENDE ASKO ERAKARRI ZUEN SANTIXABEL GAUEKO SAIDAN.



SANTIXABEL EGUNEAN USURBIL BIZIRIK PLATAFORMAK
SARDINAK BANATU ZITUEN.



MASKOTA IBOTZEKO EKITALDIAN
ANTZERKI TAILERREKO IKASLEEK
HARTU ZUTEN PARTE.



BESTE BEHIN ERE, HURBILAGOKO
KIDEEK EGIN ZUTEN LORE ETA SALDA
BANAKETA. AZPIAN, DANTZARIAK.



GAUERDI TXARANGAK ALAITU
ZITUEN BAZTERRAK
SANTIXABEL EGUNEAN.

Uztailak 5, osteguna

Goizean zehar, Pintura Lehiaketako lanen erakusketa Frontoian.

10:00-13:30 Puzgarriak eta ume-entzako jokoak Frontoian eta Joxe Martin Sagardiaren plazan.

10:00-13:00 Gaztetxoentzako jokoak Ikastolako plazan eta Kiroldegi aurrean.

13:00-14:00 Buruhandiak.

14:00 Bazkaria Frontoian, norberak otartekoa ekarri, edaria eta postrea bertan banatuko da.

15:00-17:00 Mantalata tailerrak Frontoian.

16:00-18:00 Gaztetxoentzako jokoak Ikastolako Plazan eta Kiroldegi aurrean.

16:00 Futbol 3 Txapelketa Artzabalen.

17:30-18:30 Umeentzako ikuskitzuna: Patxin eta Potxin pailazoak. Ordu berean, ziba eta diablo topaketa Artzabalen, 7 urtetik gorako umeentzat.

18:30 Txokolate jatea Frontoian. Ondoren, buruhandiak.

19:30-21:00 Haur eta gurasoentzako berbena Frontoian. Eidabe taldearen "Kanpanolue" antzerki musikala.

23:00 Kontzertua Askatasuna Plazan: Póg mo thón, Anestesia eta beste talde bat.

Uztailak 6, ostirala

06:00 Txokolatada eta oilasko biltzaileen irteera.

09:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Frontoitik.

13:30 Oilasko biltzaile txikien bazkaria: norberak bere otartekoa ekarri, edaria eta postrea bildutako diruarekin.

14:30 Oilasko biltzaileen etorrera eta bazkaria Askatasuna Plazan. Txartelak uztailaren 3a baino lehen erosi behar dira Ardi Beltzan eta

Txiribogan 12 eur otan.

Ondoren, oilasko biltzaile handien jokoak eta apar festa.

16:00 Futbol 3 Txapelketa Artzabalen.

16:30 XVII. Santixabel Igel Jokoa Gure Pakea Egoitzan.

18:00 Buruhandiak.

19:00 Folk musika emanaldia Askatasuna Plazan: Pottoka.

22:30 Kontzertua Frontoian: Skalariak, Etxe eta In Situ.

Uztailak 7, larunbata

Egun osoz dultzaineroak.

12:30 Kalejira erreibindikatioa bertsolari eta trikitilariekin.

14:00 Zikiri jana. Bazkaria animatzeko txaranga.

14:00 Usurbilgo Gazte Ekimenekoen (UGE) bazkaria Artzabalen (Itzala norberaren kontura) (Osteguna arte ticketak Txoznan salgai).

Ondoren, jokoak Artzabalen.

17:00 Kaiak jaitsiera.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak.

18:30 Toka Txapelketa Askatasuna Plazan.

19:00 Herri Kirolak: Gipuzkoako 2. mailako Aizkolari Txapelketa eta emakume eta gizonen harrija-sotze emanaldia.

19:00 Sokamuturra Kiroldegi aurreko belardian.

20:00 Errepresaliatuen oroimenezko ekitaldia Askatasuna Plazan.

22:30 Bertsolariak Frontoian: S. Lizaso, A. Egaña, A. Arzallus, J.M. Irazu, A.M. Peñagarikano eta I. Esoain.

Gai-jartzailea: J.M. Izeta.

Jarraian, Bertsopaper Lehiaketako sari-banaketa.

00:30 Izotz taldea Frontoian.

Kontzertua Artzabalen: Sexty Sexers, Hell Beer Boys eta Nuuk-At.

Ondoren, BTK Batukada taldea.

Gauean DJa Askatasuna Plazako txosnetan.

Uztailak 8, igandea

Egun osoz, dultzaineroak.

10:00-12:30 Bola txapelketa irekia.

11:00 Zanpantzarrek herrian zehar.

12:30 Xuberoako kantari eta dantzariak kaleetan zehar.

13:00 Usurbilgo I. Balkoien Apainketa Lehiaketako sari banaketa Frontoian.

13:00 Buruhandi eta erraldoiak.

14:00 Adinekoen bazkaria Saizarren.

16:00 Futbol 3 finala Artzabalen.

16:30-17:30 Bola txapelketa irekia.

Ondoren, Patata Tortilla Lehiaketa Artzabalen.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak txarangak lagundurik.

18:30 Herri kirolak: Idi-dema hiruko uztarrian eta Demako 3600 kiloko harri handia.

24:00 Maskota jaistea eta traka.

Ondoren, txaranga.

Kontzertua Artzabalgo txosnetan: Critikers eta Krilin. Ondoren, Trikitzio taldearekin dantzaldia.

Uztailak 10, asteartea

19:00 Jaietako argazkien emanaldia Sutegin.

Oharrak:

- Sutegiko Erakusketa Aretoan ikusgai egongo dira: Santixabeletako maskoten maketak, Zirriborro Tailerreko ikasleen lanak eta Pintura Lehiaketako lan sarituak.

- Jai Batzordeak ez du bere gain hartzen jaietan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.

Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzordea.

Larunbatean amaitu zen Usurbil Cup 2007

Pasa den larunbatean jokatu ziren Usurbil Cup 2007 areto futbol txapelketako azken partidak. Maiatzaren bukaeran hasi zen txapelketa eta orduz geroztik 70 partida baino gehiago jokatu dira herriko pilotalekuan eta beste behin ere giro bikaina izan da nagusi.

Infantil mailako partidarekin hasi ziren finalak larunbat arratsaldean. NOAUA! eta neska eta mutilen osatutako Kasio taldea izan ziren aurrez aurre eta emozioa izan zen nagusi neurketa

honetan. Lehen zatian NOAUA! nabarmen aurretik izan zen, baina bigarren zatian partida parekatu eta berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka. Honenbestez penaltien bidez erabaki zen finala eta sei penalti behar izan zituzten garailea nor zen erabakitzeko. Azkenean NOAUA! taldeak lortu zuen garaipena.

Ondoren alebin mailako finala ikus- teko aukera izan zen herriko frontoian. Zendoia eta Txirristra taldeen arteko lehia ikusteko aukera izan zen bertan. Zendoiak hartu zuen aurrea partida

hasieratik eta bukaeran ere beraiek izan ziren irabazleak. Izan ere, 4-0 aurreratu ziren eta ondoren Txirristrak 32 gol sartu bazituen ere ez zen nahikoa izan.

Azkenik, txapelketako jokalaria gazte- enen arteko finala izan zen, benjamin mailakoa. Bentak eta Elexpe ilea- paindegia jokatu zuten neurketa hau eta lehenengoek lortu zuten garaipena. Hala ere, partida honetan ere giro pare- gabea izan zen.

JOSU ARANBERRI



Pirinioetara mendi irteera antolatu du Andatzak

Urtero lege herriko mendi tal- deak, Andatza Kultur Kirol Elkarteak, uda partean Pirinioetan egin ohi duen asteburua antolatu du uztailaren 14 eta 15erako. Oraingo honetan Frantzia aldera joateko asmoa dute, Luchon ingurura hain zuzen ere. Uztailaren 14ean, larunbata, goizeko 7:30etan irtengo dira Andatzako lokal aurretik, Bagneres de Luchon-era iritsi eta iluntzerako Portillon aterpera lota- ra ailegatzea da antolatzaileek aurrei- kusi dutena. Horretarako 4 ordu t'er- di inguruko igoerari aurre egin behar- ko diote mendizaleek paraje ederretan barrena. Hurrengo egunean, igande-

an, Pic Lezat-eko (3107m) gailurra zapaltzen saiatuko dira, aterpetik pare bat orduko igoeraren ondoren, eta berriz ere aterpera jaitsi eta hemendik behera egin beharko dute handik etxe- ra itzultzeko. Irteera honetara joan nahi duen edonork izena posta elek- troniko bidez egin dezake ondorengo helbide honetara idatziaz: andatzake@usurbil.com, edo mendi taldeak lokal aurrean dagoen poston- tzian gutun bat utziz. Izen ematea uztailaren 11 baino lehen egin behar- ko da. Informazio gehiago nahi duten guztiek 667 435 612 telefono zenba- kira deitu dezakete.

Futbol Eskola antolatu du Usurbil FTk

Futbol taldeak Futbol Eskola martxan jarri nahi du datorren ikasturtean. Urrian hasi eta maiatza bitartean zuzendari kualifikatu baten gidaritzapean astean egun batez ordu eta erdiz futbola lantzeko aukera izan- go dute 8,9 eta 10 urteko haurrek. Horrez gain bestelako aktibitateak ere izango dituzte eta material desberdina ere jasoko dute. Kuota 50 eurokoa izango da. Aurretiko izen-ematea uztailaren 9tik 13ra izango da Oiaro kiroldegiko harreraren 18.00etatik 20.00etara.

Lanbide Hastapena, lan egin edota ikastera itzultzeko zubia

Lanbide Hastapenak matrikularioetarako ateak zabaldu ditu, datorren irailera arte. 2007-08 ikasturtea prestatzen ari dira. Aurtengoan, bost ofizio ikasi eta bi urteko prestakuntzaren ostean, horietakoren batean jarduteko aukera izango dute. Ikasten ari ez, langabezia egon edota graduatua ez duten 16-21 urte arteko gazteei zuzendutako hezkuntza eskaintza da.

Irailera arte zabalik dago Lanbide Hastapenean izena emateko aukera. DBH-ko graduatua atera ez, eta hezkuntza arautu horretatik kanpo geratzen den gazteak badu lanbide bat ikasi eta horretan jarduteko aukera. Eta bide batez, baita DBH-ko graduatua lortzeko ere.

Usurbil, Andoain eta Lasarte-Oriako udalek sinatutako elkarlanerako hitzarmen bati esker, aipatutako herrietako eskaintza dute ikasleek eskura; Usurbilen, sukaldaritza eta gozogintza eta ile-apainketa eta edergintza tailerrak; eta Andoainen, automobilaren karrozeria; galdaragintza eta soldadura. Aurtengo nobedadea, Lasarte-Orian dugu. Margolaritza tailerra abian jarriko baitute.

Langile eskaera handia

Herri bakoitzak, Lanbide Hastapenaren arloan bere apustuak eginak ditu. Usurbilek 90.hamarkada hasieran nesken aldekoa egin zuen, sukaldaritza eta edergintzako tailerrak abian jarrita. "Espezialitate gehienak tradizioz mutilei begirakoak baitziren", adierazi du Usurbilgo Lanbide Hastapeneko koordinatzaile Idoia Belokik. Gaur egun ere, neskek zailtasun gehiago dute lan munduan sartzeko.

Edozein kasutan, Lanbide Hastapenaren bidez ofizioen bat ikasten dutenek lan eskaintza zabala dute. "Langile eskaera izugarria da", adierazi du Belokik. Enpresen eskaintzak ezin beteta ibili ohi dira.



LANBIDE HASTAPENEN IKASLEEK LAN MUNDURA SARTZEKO ESKAINTZA UGARITUTZTE. ENPRESAK UNE ORO DEIA ARI ZAIZKIE ARDURADUNEI.

Ikasle bat, helburu bat

Lanbide Hastapenean bi urtez prestatzen diharduten ikasleak enpresa haietako askotara praktikak egitera doaz lehenik. Gero, lan-kontratua egiteko aukera izaten da. Horretarako, ordea, lehenik prestakuntza prozesua amaitu behar. Ikasleak hautatutako lanbiderako prestatzeaz gain, hezkuntza arautura buelta daitezke, DBH-ko graduatua aterata. Baina hori beti ikasle bakoitzaren gain geratzen da. "Ikasle goa oso heterogeneoa da, bakoitzak bere ezaugarriak eta helburuak ditu", adierazi du Belokik.

IDOIA BELOKI

"Ikasle goa heterogeneoa da, bakoitzak bere ezaugarriak eta helburuak ditu"

Pertsonekin lan egiten duten heinean, erabat pertsonalizatzen dituzte haietako bakoitzarekin landu beharreko helburuak eta erronkak ere; prestakuntza jaso eta lanean hastea, DBH-ko graduatua atera eta hezkuntza arautura itzultzea...

Hori dela eta, orientazioaren alorrari

garrantzi handia ematen diote. Beste modu batean esanda, ikaslea bera kontuan hartu nahi izaten dute; zeintzuk diren bere erronkak, nahiak, asmoak... Hori dela eta, lanbideari lotutako prestakuntza, askotan ikasleekin egoteko aitzakia bihurtu ohi da. "Asko egon eta hitz egiten dugu haiekin", gogorarazi du Belokik.

Baina azken hitza, beti ikasleak du. "Ikasleek haien egoeraz jabetzeko lan egiten dugu. Gero, ikasleek bideratu behar dute egoera", adierazi du Belokik.

Elkarlanerako deia

Lanbide Hastapeneko harremanei buruz hitz egiterakoan, lan-munduko ateak irekitzen dizkien enpresak aipatu behar. Baina ez bakarrik. Ikaslea inguratzeko duten pertsonekin lanean dihardute. Pertsona baten hezkuntzak beti elkarlana eskatzen baitu.

Hala, ikaslea Lanbide Hastapenean hasi baino lehen egon den ikastetxeko arduradunekin harremana dute. "Haiek oso ondo ezagutzen baitute, ikaslea, berarekin hamasei urte egon ostean", gogorarazi du Belokik. Hori, ordea, ez da hain erraza ikasle baten heziketan inplikaturik dauden alde guztiak batzera-

koan. "Kontu hauetan, gurasoen inplikazioa gutxitzen ari da", gogorarazi du Usurbilgo Lanbide Hastapeneko koordinatzaileak. Hori haiek antolatzen duten gurasoen bileratan sumatzen dutena da.

IDOIA BELOKI

"Ikasleek haien egoeraz jabetzeko lan egiten dugu. Gero, ikasleek bideratu behar dute egoera"

Joera hori, ordea, haien ustez, aldatu beharko litzateke. "Enfoke sistematikoa delakoa bultzatu nahi dugu. Hau da, bakoitzak, ahal dugun neurrian, gaztearen inguruan lan egiteko aukera izatea", adierazi du Belokik.

Egin nahi dena argi izatea

Irailera arte luzatuko da matrikulazio epea. Izena ematera bat baino gehiago hurbilduko da datozen asteetan.

Lanbide Hastapenetik, ideiak garbi izatea gomendatzen dute. "Zer egin nahi duten argi izan behar dute", adierazi du koordinatzaileak. Eta horrekin batera, garbi eduki behar, heziketa eskaintza honetan sartzeak suposatzen duena. Bi urte barru, lan munduan egoteko bidea zabaltzea eta beraz, horrek dakartzan ardura eta betebeharrak. Hori dela eta, garbi dute; heldutasun pertsonala lantzea da, haien heziketa prestakuntzako funtsa.

Urrian ekingo diote 2007-08 ikasturte berriari.

ARITZ GORRITI



LANBIDE HASTAPENEAN IKASTEN HASI ETA BI URTERA LAN MUNDUAN SAR DAITEZKEENEZ, JAUZI HORI EMATEKO PRESTATU NAHI DITUZTE IKASLEAK.

Lanbide Hastapen Ikastetxea, 2007-2008 ikasturtea

ESPEZIALITATEAK: Sukaldaritza eta gozogintza; ile-apainketa eta edergintza; margolaritza; automobilaren karrozeria; galdaragintza eta soldadura.

NORI ZUZENDUA: Usurbilgo herritarrak, 16-21 urte bitarteko gazteak, DBH graduatua ez dutenak, ikasten ari ez direnak edota langabezian daudenak.

IZENA EMATEKO EPEA: Ekaina, uztaila eta iraila.

HARREMANETARAKO
TELEFONOA: 943 36 04 65.

SUSTATZAILEAK: Eskualdeko hainbat udaletxe (tartean Usurbilgoa), Eusko Jaurlaritza, Europako Gizarte Fondoa.

Matrikulazio garaia amaitzear da Usurbilgo Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolak matrikula epea zabaldu zuen ekainaren 1ean eta epe hori irekita izango da uztailaren 6ra bitarte.

Hau da Lanbide Eskolaren eskaintza: Administrarritza, Elektrizitate, Mekanika eta Mantenimenduko Goi zein Erdi

Mailako Heziketa Zikloak.

Aurten ere, eskaintza partzialean hainbat heziketa ziklo zein goi mailako heziketa zikloak egin ahal izateko Sarbide Ikastaroa eskainiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu honako telefono zenbakira: 943 364 600.

Matrikulazio garaia BHI institutuan

Lasarte-Usurbil BHI ikastetxean 2007-2008 ikasturterako izena eman zutenentzat matrikula epea ireki da. Matrikula uztailaren 2tik 6ra egin beharko da institutuan bertan, eta nahi duenak beharrezko dokumentazioa eskuragarri izango du ikastetxeko idazkaritzan ekainaren 27tik aurrera.

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 5, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 6, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 7, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Uztailak 8, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 9, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 10, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 11, asteazkena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 12, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 13, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 14, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Uztailak 15, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

**Zubieta-Donostia
TST autobusak**

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

**Argazki zaharren bila
Atxegaldeko Jai Batzordea**

Etxean izaten diren eta erabiltzen
Ez diren etxe tresna zaharrak eta
Atxegaldeko jaietako argazki zaharrak
biltzen ari da Atxegaldeko Jai
Batzordea. Uzteko prest zaudetenok
deitu 635 205 734 zenbakira (Nagore)
edota e-mail bat idatzi helbide honeta-
ra: atxegaldekofestak@hotmail.com.

**KzGunea, uztailan,
arratsaldeaz irekita**

Uztailan, arratsaldeaz irekiko dira
KzGunearen ateak. Lehenengo
hamabostaldian honako ordutegian:
16:00etatik 20:00etara. Bigarren
hamabostaldian honako ordutegian:
14:00etatik 18:00etara. 943 36 14 12.

Eraikinak eta hiri guneak mantentzeko antolatu den ikastaroan izena eman dezakete langabezia direnek

Eraikinak eta hiri guneak man-
tentzeko enplegu-prestakuntza
egitasmoa abian jarriko du udalak,
irailaren 10etik aurrera. Hiru hilabe-
tetan zehar, prestakuntza jasotzean
eta sei hilabetetarako lanerako kon-
tratazioan gauzatzen da ekimena.
Langabetuei zuzendua dago eta dago-
eneko izena emateko epea zabaldu
dute, hilaren 20ra arte.

Egitasmoak bi zati ditu.
Prestakuntzari dagokiona lehenengoa.
Irailaren 10ean hasi eta abenduaren
19ra arte luzatuko litzateke.
Astegunetan, 8:00-14:30 artean,
eduki teoriko zein praktikoez osatuta-
ko hainbat modulu eskainiko dituzte;
igeltseritza, iturgintza, pintura, zur-
gintza, elektrizitatea, arriskuen pre-
bentzioa eta ingurumen sensibilitza-

zioa. Guztira 450 orduko iraupena
izango dute modulu horiek.

Kontratazioa sei hilabetez

Datorren urte hasieran, egitasmoaren
bigarren zatia ekingo zaio. Urtarriletik
aurrera eta ekainera arte kontratazioak
bideratuko dira. Udalak sei hilabeteta-
rako taldea kontratatuko du.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzza sailak eta
Europako Gizarte Fondoak diruz
lagunduriko egitasmoa da. Lanbidek,
Euskal Enplegu Zerbitzuak egitasmoa
aurrera eramateko 36.450 euroko
laguntza eman du.

**Uztailak 20,
izena emateko azken eguna**

Langabetuei zuzendutako ekimene-
an parte hartzeko motibazioa, interesa



IZENA EMATEN DUTENEN ZURGINTZA
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUTE.

eta prestutatsuna izatea aski da. Eta
lanbide horretan jarduteko inolako
muga edo eragozpenik ez izatea.

Izena emateko udaleko Garapen
Ekonomiko eta Enplegu Sustapen sai-
lera jo besterik ez dago. Horretarako
epea, bi aste barru, datorren uztailaren
20an itxiko baita.

Astelehenean hasiko da Ziortzako kanpaldia

Kanpaldia egiteko ohitura berreskuratu du Ziortza gazte taldeak. Ohi bezala, Errioxako Peñaloscintos izango da gaztetxoaren topagunea. Astelehenean iritsiko dira bertara.

Urteak ziren kanpaldirik ez zela antolatzen. Duela hilabete, ordea, Ziortzak izena emateko deialdia egin zuen eta gazteen erantzuna paregabea izan zen. Astelehenean abiatuko dira Peñaloscintosea. Eta iritsi orduko, dena prest aurkituko dute. Astebetez, primeran pasatzeko eskaintza izango dute: jokoak, irteerak...

Aurreko larunbatean egon ziren Ziortzakoak eta hainbat guraso muntaia-lanak egiten. Guztira, 48 pertsona aritu ziren prestaketa lanetan.



DATORREN ASTEAN, KANPALDIKO GAZTETXOAK JASOKO DITUEN KARPA JARTZEN HAINBAT GURASO. BERTAN EGINGO DITUZTE EGUNEKO OTORDUAK.

Mendeku Itxuak Amoroton eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da

Datorren ostiralean, uztaileak 6, gaueko 22:30ean Mendeku Itxuak kontzertua eskainiko du Amoroton (Bizkaian). Su ta Gar eta Etsaiak taldeekin batera izango dira. Bertara joateko autobusa antolatu dute. Egun horretan bertan irtengo da 19:00etan Euskotrenek San Inazioako errotonda ondoan duen geltokitik. Kontzertuak amaitutakoa, itzuliko da autobusa Usurbilera. Izen ematea zabalik dago Ardi Beltzen. 15 euroren truke, autobuseko joan etorria egin eta kontzerturako sarrera eskura daiteke. Izena emateko azken eguna, datorren uztailearen 5eko gaia. Zerbaitegatik berandu dabilenak, kontzertu egunean bertan 616 482 521 zenbakira deitu dezake.

Usurbildarrak bikain nazioarteko triatloi txapelketatan

Joxe Mari Otamendik eta Joxe Manuel Algortak lortutakoa ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula. Otamendik, adibidez, probara aurkeztu ziren 1800 parte hartzaileetatik 100 postu pasatxotan geratu zen. Pello Sasiainek l'Ampollan antolatutako Ironcat txapelketan parte hartu zuen pasa den maiatzaren 13an. Duela gutxi, Suitzako lasterketan izan ziren Otamendi eta Algorta. Egin beharreko lana hauxe zen: igeriketan 3,8 km; bizikletan 180 km; korrikan 42,2 km. Hauek dira usurbildarrek egindako denborak: Pello Sasiain: 13 ordu 6 minutu; Joxe Mari Otamendi: 10 ordu 8 minutu; Joxe Manuel Algorta: 12 ordu 5 minutu.

Michelinen, akordiorik ez

Ekainaren 25ean bildu zen Michelinengo negozioazio mahaia, langileen lan hitzarmena berritzeko osatu den mahaia. Enpresak azken eskaintza egin zuen baina LABek aditzaera eman duenez, ez da nahikoa enpresak egin duen eskaintza eta mobilizazioekin jarraitzeko deia egin du.

Dirulaguntzak euskara ikasten dutenentzat

Azken ikasturtean euskara ikasi dutenek eta UEUko ikastaroak egin dituztenek edo egitekotan direnek diru-laguntza eskatu dezakete udaletxean. Euskara ikasleak, 12 urtez beherako seme-alabak dituzten gurasoak (euskara ikasleak), euskara ikasten ari diren langabetuak eta UEUko ikasleak dira laguntza hauen onuradunak eta uztailearen 13a bitartean aurkeztu daitezke eskaerak udaletxean.

ETXEBIZITZA

- Gela bat alokatzen da, pisu konpartituan. Kontaktuan jartzeko: 635 208 551.
- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta gara-jea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garaiea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. Tf: 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. Interesatuak deitu 943366710.

Lan-eskaerak

- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest.

Interesatuak deitu zenbaki hauetako batera: 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).

- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Inork etxean alfer-alferrik telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea ere hautsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono

zenbakia: 943 361216.

- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... Tf: 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: Tf: 664 774 024.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

JAIOTZAK

- Anje Labaka Iribar, ekainaren 24an.



Zorionak Juan eta Kris!! Zuen ezkontzagatik... 07/07/07... Ondo pasaaaaaa!! Familiak eta adiskideen partez, muxuak!

Oharra: Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. E-maila: erredakzioa@noaua.com

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU

☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

Xukin
igeltseritza orokorra

Andoni Errazkin

Barne eta kanpoko lanak

☎ 663 08 76 71 • USURBIL

Kaixo noauakide!
2007ko kuota kobraketa
dugula jakinarazi.

2007ko uztailearen 10ean

Kaixo noauakide!
2007ko kuota kobraketa, **uztailearen 20an** hasiko
dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean
bezala, 36€takoa izango da. Beraz, **36€** kobratuko zaizue
datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena
eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurtan ere.

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean
sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.
Hauxe da gure kontu korronteko zenbakia:

Gipuzkoa Donostia Kutxa: 2101 0069 15 0010543064

Besarkada bat eta hurrengo arte.


OHARRA: Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta lasterren jakinaraztea eskertuko genizuke. Aldi berean, edozein zalanlza argitzeko guregana jo dezakezu.



www.noaua.com



usurbildarren zerbitzura



**FUNERARIA
GONZALEZ**

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

*Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpani guztiak*

Muna Iurra Kalea. 8

EDERTU ZAITEZ!



Eskaintza
Solariuma
35€

**Ioli
Lizarralde**

Ilarpeindegia • Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik

Zubiaurrena, 5-B ☎ 943 361 971

TXARO

- ✗ Ilu zainketa
- ✗ Ilu apainketa
- ✗ Zatikako solariuma



Ekabidea 3 - 943 371 886



Agate
ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilua

Nagusi 51 - Lasarte-Oria 943 370 548

Intza
ileapaindegia

ILE TRATAMENDUAK

- ✓ Ilea arantzearen aurkako tratamendua
- ✓ Zahiaen aurkako tratamendua

Eskaintza bereziak!
Solarium-eko bonuetan

H/ Nagusia 8 ☎ 943 363 641




Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak
Zutikako eta Etzandako
Solariuma

Muna Lirra 2. ☎ 943 370 462



Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

mistoa